



ZIENTZIA  
ETA TEKNOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE CIENCIA  
Y TECNOLOGÍA

**50 URTE**  
AÑOS  
1968 - 2018

**Biba Zientzia!**  
Ciencia Viva

Laburpena  
Resumen

**KUDEAKETA ETA  
PLANGINTZA TXOSTENA  
2018/2019  
INFORME Y  
PLAN DE GESTIÓN**

**Zientzia eta Teknologia Fakultatea**  
Facultad de Ciencia y Tecnología

[www.ehu.eus/ztf-fct](http://www.ehu.eus/ztf-fct)



## AURKIBIDEA

KALITATE POLITIKA BERRIKUSTEA.....	2
PROZESUEN MAPA.....	4
TITULU OFICIALAK.....	4
PLAN ESTRATEGIKOA.....	5
PROZESUEN BERRIKUSKETA.....	7
EMAITZA NAGUSIAK.....	9
GRADU TITULAZIOEN ADIERAZLEAK.....	9
MASTER TITULAZIOEN ADIERAZLEAK.....	11
SISTEMAKO BESTE ADIERAZLEAK.....	12
EKINTZAK.....	13
EGINDAKO EKINTZA BATZUK.....	13
2019/20AN EGITEKO PROPOSATUTAKO EKINTZA BATZUK.....	13



## KALITATE POLITIKA BERRIKUSTEA

Zientzia eta Teknologia Fakultateko dekanotza-taldeak bere egin du kalitate eta bikaintasunezko kudeaketa sustatzeko konpromisoa, eta hala jasotzen da Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari (KBBS). Konpromiso horrek urteetan zehar egin diren jarduerak gidatu ditu.

Honako hauek dira **prozesuaren mugarri nabariak**:

- Gogoeta estrategikoa, 2005-2010 eperako ikastegiaren lehenengo plan estrategikoa eman zuena (2005. urtean).
- Ikastegiko prozesuen mapa ezartzea (2005. urtea).
- Kudeaketarako bikaintasunari emandako zilarrezko Q-a lortzea (2006. urtea).
- Ikastegiko kalitate batzordea eratzea, KBBS-ren bermatzaile (2007. urtea).
- Ikastegiko prozesuen maparen lehenengo berrikusketa (2009. urtea).
- AUDIT programak KBBS akreditatzea (2010. urtea).
- Gogoeta estrategikoa, 2011-2015 eperako ikastegiaren bigarren plan estrategikoa eman zuena (2011. urtean).
- Ikastegiko prozesuen maparen bigarren berrikusketa eta UNIKUDE sistemara egokitzea (2013. urtea).
- AUDIT programak KBBS-ren ezarpena akreditatu eta zilarrezko A lortzea, MGA ereduaren arabera (2016. urtea).
- Administrazio akademikoaren zerbitzuko zerbitzuen karta (2017. urtea).
- Gogoeta estrategikoa, 2017-2020 eperako ikastegiaren hirugarren plan estrategikoa eman zuena (2017. urtean).

Oinarri horren gainean kudeatzen dira ikastegiko bederatzi graduak eta gradu bikoitza, **KBBS-ren organo** hauek bidelagun izanik:

1. **Fakultateko batzarra**: Ikastegiaren kalitaterako politika eta helburuak onesteko ardura du, 2005-10, 2011-15 eta 2017-20 plan estrategikoetan eta azken ikasturtean burututako ekintza eta jardueren berri jasotzen duten urteroko kudeaketa-planetan adierazita. Fakultateko Batzarrari dagokio ikastegiko kalitate-batzordearen eta graduiko ikasketa-batzordeen eraketa, osaera eta funtzioak onartzea. Era berean, Fakultateko Batzarrari dagokio titulazioetarako proposatzen diren hobekuntza ekintzak onartzea, graduiko tituluen kalitatea bermatzeko sistemaren esparruan, besteak beste, graduetako jarraipen autotxostenak oinarri hartuta, graduiko ikasketen batzordeek egin eta kalitate batzordeak babestu eta aurkeztuta.

2. **Dekanoa**: Fakultatearen ordezkari akademiko gorena da, dekanotza-taldearen eta, bereziki, kalitate eta berrikuntzarako dekanordearen laguntzaz, fakultateko batzarrak onetsitako erabakiak betetzeko konpromisoa duena, hauen artean KBBS diseinatu, ezarri, berrikusi eta hobetzeko ardurak sartzen direlarik. Bere egiten ditu KBBS-ren dokumentuak, fakultateko batzarrari aurkezten dizkio ikastegiaren kalitate politika eta helburuak eta proposamena egiten dio ikastegiko kalitate-batzordearen eta graduiko ikasketa-batzordeen eraketa, osaera eta eginkizunak onar ditzan.

3. **Kalitate eta berrikuntzarako dekanordea**: KBBS-k esleitutako arduraz aparte eta bestelako eginkizunen artean, ikastegiko prozesuen mapako prozesuak ezarri, mantendu eta berrikusi daitezela bermatu behar du, fakultatearen KBBS garatuta. Horrez gain, ikastegiak burutzen dituen berrikuntza programak koordinatzen eta sustatzen ditu, baita plan estrategikoak, kudeaketa-txostenak eta titulazioen jarraipen txostenak egin ere.



**4. Ikastegiko kalitate batzordea (IKB):** Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren plangintza eta jarraipen zereginetan dihardu aholkulari, eta, gainera, barne komunikaziorako tresna da kalitate-sistema honen politikaren, helburuaren, planaren, programaren, erantzukizunen eta lorpenen inguruan. KBBS-ren bermatzaile izatea du eginkizun nagusia. Honako hauek dira osakideak:

- Dekanoa, batzordeburu gisa.
- Kalitate eta berrikuntzaren arloko ardura duen dekanordea, idazkari gisa aritzen dena.
- Irakasle-ikertzaileen bi ordezkari, kalitatearen kudeaketan akreditatuak.
- Ikastegian irakasten diren titulazioetako koordinatzaileak.
- Administrazio eta zerbitzueta langileen ordezkari bat.
- Graduako ikasleen ordezkari bat.
- Graduondoko ikasleen ordezkari bat.

**5. Graduako ikasketen batzordeak (GIB):** Ikastegiko graduako ikasketen curriculumen garapena, jarraipena, berrikusketa eta hobekuntza burutzeaz arduratzen dira. Fakultateko Batzarrak onartu zituen eginkizunak 2009ko maiatzaren 4an. Honako hauek dira osakideak gradu bakoitzeko batzordean:

- Titulazioaren koordinatzailea, batzordeburu gisa aritzen dena.
- 1., 2., 3. eta 4. mailetakoa lau irakasle koordinatzaile.
- Halakorik egonez gero, beste koordinatzaile batzuk, eginkizunak graduako eremuan balituzte: gradu amaierako lana, kanpoko praktikak, laborategiko praktikak, landa praktikak, tutoretza plana eta beste.
- Ikasleen bi ordezkari, ikasleen kontseiluak proposatuta.

**6. Titulazioaren koordinatzaileak:** Irakasleak dira, dekanotza-taldeak izendatuta. Bakoitzak bere titulazioaren koordinazio horizontal eta bertikala du eginkizun nagusi, dagokion GIB-ren laguntzaz. Ikastegiko kalitate batzordeko kide ere badira. Aldi berean, informazioa bideratzen dute batzorde bi horien artean.

**7. Mailako koordinatzaileak:** Maila berean aritzen diren irakasleek beren artean aukeratutako irakasleak dira, izendapena fakultateko batzarrak onetsi behar duelarik. Mailako irakaskuntza-jarduerak behar bezala garatzen direla bermatzea du eginkizun, jarraipena egiteko behar den informazioa batuz.

**8. Bestelako koordinatzaileak:** Graduaren premien arabera, bestelako koordinatzaile batzuk egon daitezke GIB-en baitan, esaterako, landa praktikak, laborategiko praktikak, kanpoko praktikak, gradu amaierako lana edo beste arduraren bat dutenak. Hauen izendapenak eta eginkizunak mailako koordinatzaileen antzekoak dira. Hauen jardute-eremua ikasleek egindako jarduerak mugatzen dituzte, zein bere koordinazio-eremuan.

**Oharra:** Kudeaketa eta Plangintza Txostenak 2019ko irailean zentroari esleitutako masterren emaitzak eta ekintzak biltzen ditu. Nahiz eta horiek 2018/2019 ikasturtean UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskolak kudeatu dituen, UPV/EHUko Gobernu Batzordeak erabaki du 2018/19 ikasturteko masterren emaitzak eta ekintzak ZTF-FCTren bitartez aurkeztea. Ekintza eta emaitzak titulazio horiei dagozkien auto-txostenetan agertzen dira. Batzorde akademikoek eta master arduradunek egin dituzte auto-txostenak. Batzorde akademikoak eta master arduradunak ez dira agertzen KBBSko organoen zerrendan, 2018/19 ikasturtean ez baitziren zentroko kudeaketa egituraren parte.

## PROZESUEN MAPA



## TITULU OFICIALAK

### GRADUAK

Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza  
 Biologiako Gradua  
 Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua  
 Bioteknologiako Gradua  
 Fisikako Gradua  
 Geologiako Gradua  
 Ingeniaritza Elektronikoko Gradua  
 Ingeniaritza Kimikoko Gradua  
 Kimikako Gradua  
 Matematikako Gradua

### GRADUONDOAK

Itsas Baliabide Biologikoak Erasmus Mundus Masterra  
 Itsas Ingurumena eta Baliabideak Erasmus Mundus Masterra  
 Mikrouhinetako Elektronika eta Optika Berritzaileak Erasmus Mundus Masterra  
 Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Gestioa Unibertsitate Masterra  
 Biologia Molekularra eta Biomedikuntza Unibertsitate Arteko Masterra  
 Ingeniaritza Kimikoa Unibertsitate Arteko Masterra  
 Ingurugiroaren Agrobiologia Unibertsitate Arteko Masterra  
 Ingurumenaren Kutsadura eta Toxikologia Unibertsitate Masterra  
 Kimika Sintetiko eta Industrial Unibertsitate Arteko Masterra  
 Material Berriak Unibertsitate Arteko Masterra  
 Modelizazioa eta Ikerkuntza Matematikoa eta Konputazioa Unibertsitate Arteko Masterra  
 Paisaiaren Kudeaketa. Ondarea, Lurraldea eta Hiria Unibertsitate Masterra  
 Zientzia eta Teknologia Kuantikoak Unibertsitate Masterra

## PLAN ESTRATEGIKOA

### 1. Ardatza. Irakaskuntza

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSO A	BETETZE- MAILA
HE.1.1. Ikasleen formakuntza sendotzea eta emaitza akademikoak hobetzea	2017/18	%53
	2018/19	%73
HE.1.2. Ikasleen nazioartekotzea sustatzea	2017/18	%65
	2018/19	%92.5
HE.1.3. Irakasleen arteko koordinazioa hobetzea	2017/18	%60
	2018/19	%80
HE.1.4. Graduondoko formakuntza eskaintza laguntzea eta hedatzea	2017/18	%75
	2018/19	%92.5

### 2. Ardatza. Ikerketa

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE- MAILA
HE.2.1. Ikerketa jardueri buruzko ezagutzak hobetzea	2017/18	%0
	2018/19	%0
HE.2.2. Ikerketa-taldeen arteko harremana laguntzea	2017/18	%50
	2018/19	%75
HE.2.3. Ikerketa-taldeak laguntzea	2017/18	%76.67
	2018/19	%86.67


### 3. Ardatza. Pertsonak

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE- MAILA
HE.3.1. Ikastegiko langile eta ikasleei egindako harrera eta aintzatespena hobetzea	2017/18	%33.33
	2018/19	%91.67
HE.3.2. AZL/IRIaren parte-hartzea sustatzea Fakultateko ekintzetan eta proiektuetan	2017/18	%87.5
	2018/19	%100
HE.3.3. AZL/IRIaren garapen profesionala hobetzeko tresna berrien inguruko formakuntza sustatzea	2017/18	%35
	2018/19	%65
HE.3.4. Ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzea	2017/18	%52
	2018/19	%70

### 4. Ardatza. Kudeaketa, Berrikuntza eta Erantzukizun Soziala

HELBURU ESTRATEGIKOA	KURTSOA	BETETZE- MAILA
HE. 4.1. Hezkuntza-berrikuntza bilatzen duten proiektuak babestea IRIaren parte-hartzea sustatuz	2017/18	%0
	2018/19	%37.5
HE.4.2. <i>Benchmarking</i> a sustatzea beste ikastegi batzuekin	2017/18	%50
	2018/19	%70
HE.4.3. Aurrerapenak egitea kudeaketa aurreratuko sistema inplementatzeko prozesuan	2017/18	%21.67
	2018/19	%40
HE.4.4. Erantzukizun Sozialek ekintzak sustatzea	2017/18	%38.33
	2018/19	%48.33
HE.4.5. Dibulgazio zientifikoa sustatzea gizartean	2017/18	%57.5
	2018/19	%67.5

## Plan Estrategikoaren betetze-maila



### ONDORIOAK

**1. ARDATZA-** HE.1.1.1 ekintzan izan ezik (Lehen mailako irakasgai partekatuetan lagungarriak izango diren eta ikasleen aurretiazko ezagutzak sendotuko dituzten on-line ikastaroak garatzea), dekanotza-taldeak ezin duelako ziurtasunez zuzendu itxi egin dena, 1. ardatzeko beste ekintza estrategikoetan aurrerapauso nabarmenak eman dira, ia beste guztiak % 100 eginak daude edo balio horren inguruko betetze-maila dute.

**2. ARDATZA-** Zentroak ikerketa taldeei eskaintzen dien laguntza, zentroak beren lana sustatzera bideratutako aurrekontu arruntaren portzentaje-gehikuntzan islatzen da. Horrela, ikerketa segurtasunez aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak ziren instalazioen hobekuntzak dakarren kostua onartu da. Bestalde, ikerketa taldeekin urteko bileran antolatzekeo beharra baloratu da, eta ikerketa jardunaldien markoan egiten diren bi urteko bilerek talde desberdinen artean sinergiak ezartzeko funtzioa dutela erabaki da. Azkenik, interesgarritzat jotzen da ikerketa taldeen inbentario bat izatea eta zer eskaini dezaketen. Planaren gainontzekoan HE.2.1 (Ikerketa jardueraren ezagutzan hobetzea) lorpenean aurrera egitea espero da, orain arte ez da lan egin horretan.

**3. ARDATZA-** HE.3.1 (Zentroko langileen eta ikasleen harrera eta esker ona hobetzea) eta HE.3.2 (Fakultateko jarduera eta proiektuetan IIP/AZPren parte hartzea sustatzea) helburu estrategikoetan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira. Izan ere, azken helburu horri lotutako ekintza estrategiko guztiak behar bezala gauzatu dira dagoeneko. Zentroko 50. urteurrenaren ospakizunean frogatu da langileek Fakultatearekin duten inplikazioa.

Ardatz estrategiko honetako beste bi helburutan ere aurrera egin da: HE.3.3 (IPP/AZPren garapen profesionala hobetzeko tresna berrietan trebakuntza sustatzea) eta HE.3.4 (Ikasleei eskainitako zerbitzuak hobetzea).

Azken horretan, ikasleek egin beharreko kudeaketak erraztuko dituzten online formularioak ezartzeko bideragarritasuna aztertzekeo egindako ikerketa nabarmenak dugu. Bestalde, harremanetan jarri gara Ikasle Kontseiluarekin, nahiz eta lanean jarraitu behar den zentroko bizitza akademikoan ikasle kontseiluaren inplikazioa sustatzeko.

**4. ARDATZA-** Aurrerapauso nabarmenak eman dira 4.1.1 ekintza estrategikoan (IIPei hezkuntza-berrikuntzako jardueretan parte hartzekeo laguntza-deialdi bat ezartzea), HE.4.1 helburu estrategikoaren barruan kokatzen da (Hezkuntza-berrikuntzako proiektuak sustatzea, IIPen parte hartzea sustatuz). Ardatz honetako gainerako helburu estrategiko irekietan, bitan izan ezik, aurrerapenak egin dira. Izan ere, horietatik bostek betetze-maila % 75ekoa edo % 75a baino altuagoa dela erakusten dute.

## PROZESUEN BERRIKUSKETA

### 1. PROZESUA

Egungo prozedurei lotutako adierazleak berrikusi dira (duela gutxi sortu den 3.1. Masterren Kudeaketa – behin behinekoa– izan ezik), zaharkituta geratu direnak ezabatu dira eta maximo eta gutxienerako balioak finkatzen lagundu digun analisi bat egin da. Hala ere, beharrezkoa da jokoerak aztertzen jarraitzea, ezarritako mugak zuzendu behar diren jakiteko. Horrela, ekintza estrategikoan aurrerapausoak ematen ari dira, "OE.4.3.3. Kudeaketa-sistemako adierazleak jokoerak berrikustea egoera errealeko maximoak eta gutxienerakoak egokitzeko."

Bestalde, beharrezkoa da prozesuen sistema egokitzea zentroko masterren kudeaketako azken transferentzia kudeatu ahal izateko, izan ere, sortu den prozedura berria ez da nahikoa. Azkenik, egin behar dugun beste ekintzetako bat prestakuntza duala kudeatu ahal izateko prozedura bat diseinatzea da, etorkizun hurbilean ibilbide dual bat sartu ahal izateko.

### 2. PROZESUA

ZTF-FCTko ia gradu guztietan betetzen da eskainitako plazen kopurua. Sarbideko gutxienerako eta batez besteko notak bikainak dira gradu gehienetan. Sarbideko gutxienerako nota 11.0 baino gehiagokoa da hamarretik sei gradutan, eta batez besteko nota zazpi da. Desiragarria izango litzateke besteetan ere igotzea. Geologiako Graduan da soilik sarbideko batez besteko nota bederatzi bano baxuagoa, nahiz eta azken hiru ikasturteetan igo egin den. Gainera, egokitasun tasa oso ona da (% 80a baino gehiago) lau gradutan, eta hirutan % 90a baino gehiagokoa da. Bi gradutan (IE eta IK) graduen egokitasuna jaisten ari da argi eta garbi.

Errendimendu tasa hobetu egin da hamarretik sei gradutan eta beste lauetan % 5a baino gutxiago jaitsi da.

Arrakasta-tasak aurreko ikasturteen parekoak dira, IEn izan ezik, 2017/18 ikasturtearekin alderatuta % 8a jaisten da, ikasturte horretan lortutako balioa berezia da. Lehen mailako uzte tasa hobetu egin daiteke IKn, eta baita GEO eta IEko uzte tasa ere.

Graduatutakoen tasa % 50a baino gehiagokoa da graduen erdian, egresatuen efizientzia tasa oso ona da, gradu batean da % 80a baino baxuagoa. Egresatuak pozik daude izandako formakuntzarekin, asebetetzea 10etik 7 baino altuagoa da.

Mugikortasun programetan parte hartu duten ikasleen kopuruak gora egin du 2018/19 ikasturtean. Gainera, mugikortasun akademiko batean parte hartu duen egresatuen portzentajea ia %20ekoa da. *Incoming* ikasleen kopuruak gora egin arren, ahalegin handiagokoa egin behar da kopuru hori handiagokoa izan dadin.

Ikasleek praktikak egiteko gero eta interes handiagokoa erakusten dute. Enpresen Aurkezpen Jardunaldietara joan den ikasleen kopuruak gora egin du, eta batez bestekokoa mantentzen da. Enpresak oso pozik daude Jardunaldiekin eta praktiketako ikasleekin.

Okupazio eta enplegu-tasak ZTFko gradu guztietan oso onak dira. Horietatik bost gradutan % 95a baino gehiagokoa da.

### 3. PROZESUA

ZTF Euskadiko ikerkuntzan erreferentea da. Ekoizpen zientifikoaren eta haren kalitatearen gorazko joera, IIPek argitaratutako ISI argitalpenetan islatuta, nabarmen igo da 2018/19an. Era berean, zentroko IIPen formakuntza gaitasuna altua da, master eta doktorego tesien zuzendaritzan parte-hartze kopuru nabarmen bat erakusten du.

### 4. PROZESUA

Nabarmenezkoa da langileek zentroko proiektuarekin duten inplikazioa. Horren adibide da 50. urteurrenaren ospakizun ekitaldietan Fakultateko kolektibo guztien parte-hartze nabarmena.

Nahiz eta zentroko eskumenen gaintik egon, larrituta gaude gure IIPen egonkortasunaren jaitzierarekin eta AZLen eta 2008an Fakultaterako onartu zen erreferentzia ereduaren artean dagoen desdortzearekin.

### 5. PROZESUA

Fakultatearen esku dagoen aurrekontuaren kudeaketa ekonomiko egokia egiten da. Portzentaje garrantzitsu bat 2. Prozesuari, Graduari, eskaintzen zaio, aurreikusitako helburuen barruan. Hala ere, 5.01 adierazleak, (Ikasleentzako hobekuntzei eskainitako aurrekontuaren portzentajea) aurreko ikasturteekin alderatuta, beherakada bat ikus daiteke. Izan ere, aurrekontu arruntaren





zati bat, adierazlean kontuan hartzen dena, ikerketa taldeak zentroko azpiegiturak hobetzeko erabili du, instalazioen segurtasuna dela eta. Haatik, finantzazio gehigarria lortu da 5.01 adierazlean, ez konputatua, aurreko ikasturteetan aurrekontu arruntarekin eskuratzen zen irakaskuntza azpiegituraren beharrak betetzeko.

Unibertsitateak argitaratutako finantza-deialdi guztietan parte hartzean gain, gure azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzeko aukera eskaintzen diguten baliabide ekonomiko osagarriak lortzeko, babes garrantzitsua lortu da Fakultateko 50. urteurrenaren ospakizuneko askotariko ekitaldiak burutzeko.

Bestalde, kudeaketari lotuta, ikasleei eragiten dieten izapideak azkartzeko ekintzak egiten ari dira.

## 6. PROZESUA

Instalazioei dagokienez, lan-baldintzak hobetzeko mantentze prebentiboa egin da. Adibide gisa, B1, CD3-4-5 eta f eraikinetako ikerketa-laboretegietako gas-bitrinak ikuskatu eta egiaztatu dira, CD1 eta CD2 hodiak garbitu dira eta CD2 P2.14 laboretegiko gas-bitrinaren erauzgailua ordeztu da, segurtasun-arrazoiengatik.

Prebentzio materia hobekuntzako eta ingurumen hobekuntzako ekintzen kopurua mantentzen da. Hala ere, zentroak ekoiztako hondakin toxikoen minimizazioarekin jarraitu behar da.

## 7. PROZESUA

Euskarazko ekintza kulturalen portzentajeak gora egin du. Hala ere, kopuru hori hobetu egin behar da, izan ere, geroz eta ikasle eta langile elebidun gehiago daude. Bestalde, ingelesezko ekintza kulturalen portzentajeak behera egin du aurreko urteekin alderatzen badugu. Baliteke beheraka horren arrazoia Fakultateko 50. urteurrenagatik euskaraz eta gazteleraz antolatu diren ekintzen gorakada izatea.

Euskaraz defendatutako GRALen kopuruak altua izaten jarraitzen du, kontuan hartzen badugu gazteleraz eta ingelesez ere defendatzen direla. Doktore tesi gehiago defendatzen dira euskaraz, adierazlearen kalkuluan egon diren aldaketak direla eta. Bertan euskaraz defendatutako tesiak jasotzen dira eta epaimahai ebaluatzaileak defentsaren aktan aipatuko du.

Geroz eta kreditu gehiago eskaintzen dira ingelesez, eta EFC modalitateko ikasgaien kopuruak nabarmen egin du gora. Gainera, nazioarte mailako gradu bikoitz berri bat martxan jarri da.

## 8. PROZESUA

Fakultatearen 50. urteurrenaren ospakizunari eta antolatutako ekintzei esker, eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko praktiketako ikasleari esker, Fakultatea gizartean ezagunagoa da. Era berean, lehen aldiz, Fakultateak gela teknologiko bat du, eta hori aukera bikaina da Fakultateko irakasle eta ikasleentzat enpresa mundura hurbiltzeko.

## 9. PROZESUA

Docentiaz programaren bitartez ebaluatutako irakasleen portzentajea %40koa baino altuagoa da. Aurrerapen nabarmena da, lau urtean %20an handitu baita, eta Fakultateko irakasleen irakaskuntza-lan ona islatzen du.


Gainera, sistematikoki gogobetetasunaren inguruko inkestak egiten zaizkie taldeei eta erantzunak txosten hauetan jasotzen dira. Txosten horiek, adierazle-multzoaren azterketarekin batera, hurrengo ikasturterako Hobekuntza Plana osatzen duten hobekuntza-ekintzak ezartzea ahalbidetzen dute. Adibide gisa, egindako gogobetetze-inkesta batean item baten emaitzak aztertu ondoren, hobekuntza-arlo bat zentroaren webgunean emandako informazioa dela zehaztu da. Ondorioz, hobekuntza-talde bat sortuko da, dekanotaldeko kideek eta multimediako langileek osatua, bertako edukiak berrikusteko eta eguneratzeko.

Sistemaren prozeduren eta prozesuen berrikuspenera modu egokian egin da.


## EMAITZA NAGUSIAK

### GRADU TITULAZIOEN ADIERAZLEAK


Sartzeko gutxieneko nota




Graduen okupazioa




Egokitzapen-tasa




### Errendimendu-tasa




### Ikasketen uzte-tasa



### Ikasketak amaitu dituztenen kopurua




### Enplegu-tasa




### MASTER TITULAZIOEN ADIERAZLEAK


#### Masterren okupazioa



#### Errendimendu-tasa



### Ikasketen amaitu dituztenen kopurua



### SISTEMAKO BESTE ADIERAZLEAK

ADIERAZLEA	18/19	17/18	16/17	15/16	14/15
2.07p Mugikortasun programetan parte hartu duten egresatuen ratioa	19.66	24.32	18.40	12.75	13.09
2.08a Curriculumeko edo curriculumetik kanpoko praktikak egiten ari diren ikasleen kopurua	271	261	205	193	179
3.0d IIPen ISI argitarapenen ratioa	1.15	1	0.93	0.86	0.88
3.0i Defendatutako Tesien kopurua	80	102	99	99	85
% Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako irakasle-ikertzaile doktoreak	85.95	87.2	88.33	88.47	89.54
% Ikastegiari lanaldi osoz atxikitako irakasle-ikertzaile iraunkorrak	72.38	76.33	77.86	78.35	82.67
5.0b Irakaskuntza jardueri eskainitako aurrekontu arrutaren %	62.83	81.98	77.16	107.58	108.97
5.0k Ikerketa taldeei laguntzeko eskainitako zentroko urteko aurrekontuaren %	26.59	8.49			
6.2d Zentroan garatu eta zabaltu diren ingurumen hobekuntzarako ekintzen kopurua	6	6	6	7	8
7.1c Euskaraz egindako GrALen %	37.59	34.88	37.59	34.64	25.44
7.2h Ingelesez irakasten diren irakasgaien kopurua	34	30			
7.2i EFC irakasgaien kopurua	61	39			
8.2c Kanpoko erakunde eta instituziokin hitzarmen eta kolaborazio kopurua	40	11	5	8	3
% DOCENTIAZ bidez ebaluatutako IRI	43.04	35.99	30.65	25.37	18.69



## ERINTZAK

### EGINDAKO EKINTZA BATZUK

- 1.- Akreditazio instituzionala lortzea.
- 2.- Prozedurei lotutako adierazleen bateriaren eta balio maximoen eta minimoen berrikuspena.
- 3.- Mugikortasun akademikoko dokumentazioaren kudeaketa erraztu.
- 4.- Enplegarritasun-tasa hobetzeko ekintzen planaren diseinua.
- 5.- Fakultatearen 50. urteurrenerako finantzazioa lortzea.
- 6.- Lokalen egokitzapenaren eta Fakultateko azpiegituren mantentzeko eta hobetzeko lanak.
- 7.- Kontu-ikuskapena eta fluxu laminarreko kabinen prestakuntza eta Fakultateko irakaskuntza-laborategietako biosegurtasuna.
- 8.- Ikasgeletako 57 UIBren berrikuntza.
- 9.- Ikasleen artean ikasleen elkarleen existentzia zabaltzea.
- 10.- Fakultatearen 50. urteurrenaren ospakizun ekitaldiak antolatzea.
- 11.- Gradu ikasketetan hainbat aldaketa (irakaskuntza bektorea aldatzea, irakaskuntza hizkuntza berriak, lauhilekoaren aldaketa, ...).
- 12.- GIBk eta masterreko Batzorde Akademikoek egindako titulazioa hobetzeko hainbat ekintza.

### 2019/20AN EGITEKO PROPOSATUTAKO EKINTZA BATZUK

- 1.- Prozesuen Mapa eta kudeaketa sistema aldatzea zentroari esleitutako masterren kudeaketa sartzeko.
- 2.- Zentroko gradu batean ibilbide dual bat kudeatzea ahalbidetuko duen prozesu bat diseinatzea.
- 3.- Mugikortasuneko ikasleen (**Outgoing**) matrikulazio prozesua hobetzea.
- 4.- Mugikortasun programak kudeatzeko zentroko Araudi propio bat egitea.
- 5.- Zentroko Batzarraren Aktak digitalizatzea.
- 6.- Ikasleen kudeaketarako formulario elektronikoak egitea.
- 7.- Arbel digitala jartzea.
- 8.- CD2, CD3 eta CD4ko aire girotuko hodian garbiketa eta saneamendua.
- 9.- Zentroko web-orriko edukiak berrikustea eta eguneratzea.
- 10.- Masterretako interes taldeen gogobetetzea ezagutzeko inkesta ereduak diseinatzea.
- 11.- Geologia eta Ingeniaritza Kimikoa zabaltzea.